

IGEaren azken berriak

Ikastolako Guraso Elkartearen buletina

2020/21 ikasturtea



ADI!!

Orintxe abiarazi ditu Donostiako udaletxeak partaidetzako aurrekontuak: Alde Zaharreko 3 proiektu izan dira onartuak (1. Ping-pong mahaiak Zuloagan jartzea; 2. Aterpe bat jartzea Zuloagako parkean, 3. San Bizente, Donibane, Sorluzen jolasgune eta altzariak), guztiak Zuloaga eremuarekin lotuak eta gure seme-alabak dabilzan espazioetan. [Bozkatu](#) zuen aukera gustokoena. Guraso Elkartetik bozka egingo dugu honen alde **Aterpe bat jartzea Zuloagako parkean**.

ZERTAN GABILTZA ORAIN?

2020/21 ikasturtea ixten eta hurrengoa aurreikusten:

- Eskolaz-kanpoko ekintzen antolaketa aztertzen.
- Zerbitzua ematen diguten hainbat norbanako, enpresa eta elkarteekin harremanetan gabiltza eszenatoki desberdinen aurrean lana aurreratu nahian, nahiz eta iraila arte ezin izango dugun ezer erabaki. Orduan jarriko gara familiekin berriz ere harremanetan behin betiko eskaintza zein den azalduz, izen-emateen epeak agertuz, etab.
- Eskola-Kirolaren proiektu berria kudeatzen.
- Hurrengo ikasturtean ikastolak martxan jarriko dituen hainbat proiektu identifikatzen.
- Zaintza zerbitzua: aurten ezin izan da eskaini, Hezkuntza Sailak ezarritako burbuilen neurria zela-ta. Hurrengo ikasturterako ere zalantza handiarekin.

ZERTAN INBERTITU DUGU?

- HHko materiala.
- Ikastolako irteereterako autobusak eta sarrerak.
- Bertsolaritza ikastaroa LH5 eta LH6.
- Igeriketa ikastaroa LH2.
- Santo Tomas jaia eta opariak.
- Piragismoa eta bela ikastaroa LH5 eta LH6.
- Ikastolako web domeinua.
- Psiko gelarako hornikuntza eta telazko materialak plastifikatuengatik ordezkatu (desinfektatzeko errazago).

OHARRA: gaur egun dugun informazioarekin ezin ditugu eskolaz-kanpoko ekintzak ezta zaintza lotuta utzi datorren ikasturterako, Hezkuntza Sailak ez baitu aurreratu 2021/22 ikasturtea nola hasiko den.

Hortaz, pazientzia izan beharko dugu eta irailan, ahal bezain pronto, helduko diogu gaiari. Izango duzue gure berri!

ZER EGIN DUGU IKASTURTE HONETAN?

- Burbuilak mantenduz eskolaz kanpoko ekintzak eskaini eta gauzatu ahal izan ditugu LH osoan. Haur Hezkuntzan, tamalez, Hezkuntza Sailaren aginduak jarraituz, ezin izan da ezer eskaini.
- Eskola kirola, LABIren jarraibideak betez, ahal izan den moduan eskaini dugu, eta jarraipena egin diogu (hau da, adi egon Jaurilaritzaren neurrien argitalpenetara, begiraleen kontratazioen egoera aldaketak bideratu, gurasoak une oro informatu, eta abar).
- Jangela garaiaren azterketa. Jangela eredu desberdinak ikertu, gure jangelaren egoeraren azterketa bideratzeko.
- Ikastola inguruko espazio publikoak eskola garaian ikasleek erabiltzeko eskaerak Udaletxeari. Zuloagan karpa jartzea tanteatu Udalarekin, parkea estali, peatonalizatze eta trafikoa kentzearen jarraipena. Oraingoan, trafikoa bakarrik eten da, eta hala moduz. Datorren ikasturtean ere, gai honen alde borrokatuko dugu, espazio SEGURU eta humanizatuaren alde.
- Covid19 batzorde bat eratu zen ikasturte honetarako, hurrei pandemia garaian hartutako neurriei inguruko informazioa bildu eta gurasoekin partekatuz.
- Ikastolako zuzendaritzarekin batera webgunean igotako ikasleen irudiak eremu pribatura aldatzearen analisia.

HURRENGO IKASTURTERAKO BERRIAK

ESKOLA KIROLA PROIEKTU BERRIA

Gakoak: kirol aniztasun handiagoa, filosofia ez lehiakor eta hezitzailean oinarritua. Bertan, Donostiako ikastetxe hauek parte hartuko dugu: Aitor ikastola, Amassorain ikastola, Ibai ikastola, Jakintza ikastola, Intxaurrondo ikastola, Zurriola ikastola eta Orixe ikastola.

ONGI ETORRI ESKOLARA PROIEKTUA

[Ongi Etorri eskolara](#) ekimenak "eskola eta komunitate inklusibo bateruntz bidea eginez, kulturarteko eredu pedagogikoa abian jartzeko akonpainamendu lana egiten du, ikaslego osoaren aukera berdintasunerako funtsezko gakoa euskara dela kontuan harturik."

Ikasturte honetan diagnostikoa egin da eta datorrenean *Bidelagunak* proiektua landuko dugu. Talde eragile bat sortuko da eskolako komunitate osoak parte har dezan. Interesaturik bazaude, eman izena!

gurasoelkarte@orixeikastola.eus

